

## DEIALDIA

Estella-Lizarrako Udalbatza osatzen duten kideei **OHIKO OSOKO BILKURARA** dei egiten zaie, datorren **2020ko ekainaren 4an, OSTEGUNA, HAMAIRUETAN (13:00)**, ez aurrez aurre, bideokonferentziaren bidez, honekin batera atxikitzen den Gai-zerrenda hau aztertzeko eta erabakitzeko.

Estella-Lizarra, 2020ko maiatzaren 28an  
El Alcalde / Alkatea



Koldo Leoz Garcilandia

## GAI-ZERRENDA

Bilkurara deitu da deialdi honetako Gai-zerrendan dauden arazoei buruz eztabaidatzeko eta bozkatzeko xedez. Deialdiak, Estella-Lizarrako Udalaren ohiko administrazioaren erabaki-proposamenak hartzen ditu barne.

Udalbatza hau aurrez aurre ez egiteko eta bideokonferentziaren bidez egiteko egokitasunari buruz, Lehendakaritza honen iritziz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.3 artikulua xedatutako salbuespen baldintzak betetzen dira, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Dekretu-Legearen bigarren azken xedapenean onetsita, zeinean premiazko neurri osagarriak gizarte eta ekonomia arloetan onesten baitira koronabirusaren (COVID-19) inpaktuari aurre egiteko, eta horiek Udalaren kide anitzetako bilkurak egitea eta akordioak distantziara hartzea, baliabide elektronikoen edo telematikoen bidez, justifikatzen dituzte, betiere, arauan aurreikusitako baldintzak betetzen badira, bilkurak iraun bitartean kideen arteko komunikazioa denbora errealean bermatzen bada, eta beharrezko baliabideak egon badaude horietako izaera publikoa eta sekretua bermatzeko, kasu bakoitzean legeak xedatutakoaren arabera.

Horrez gain, lehendakaritza honek uste du -bilkuraren izaera berezia, bozkatzeko dauden akordioen edukia eta Udal honek gaur egun dituen baliabide tekniko eta materialak kontuan hartuta- Udalbatza egiteko erabili behar den sistemak segurtasun teknologikoa, Udalbatzako kide guztien parte hartze eraginkorra eta onetsiko diren akordioei buruzko eztabaidaren eta bozketaren balioa erabat bermatzen dituela.

**Deialdiaren Gai-zerrendan dauden gaiak eztabaidatu eta bozkatu baino lehen, bidezkoa da Udalbatzak, quorumeko gehiengo osoarekin, Osoko Bilkura baliabide ez presentzialekin egiteko justifikatzen duten salbuespenak aldi batera gertatu direla berretsi behar du. Eta bertaratuko den udalkide bakoitzak saioa baliagarria izateko legezko baldintzak betetzen dituela berrestea (nortasuna eta lurralde nazionalen egotea).**

## **AKTAK IRAKURRI ETA ONESTSI**

**1.- 2020ko maiatzaren 7ko ohiko osoko bilkuraren akta irakurri eta onetsi, bidezkoa bada.**

### **GOBERNU-ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA**

**2.- Alkatearen Ebazpenak eta Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak, ohiko azken bilkuratek hartutakoak.**

### **IZAERA ERABAKIGARRIA DUTEN XEDAPENAK ETA TXOSTENAK**

**3.- Aldatzea, bidezkoa bada, Kontratazio Mahaiaren osaera, baldintza-pleguan aurreikusita dagoena, enkantearen bidezko prozedura irekiaren bidez, Estella-Lizarrako San Frantzisko Xabierkoa kaleko – Koroatze plazako zorupeko 3. Solairuan dauden 87 aparkaleku plazak besterentzeko.**

**4.- Aldatzea, bidezkoa bada, Kontratazio Mahaiaren osaera, baldintza-pleguan aurreikusita dagoena, Estella-Lizarrako Los Llanos Parkean kokaturik dagoen "Chiringito La Hormiga"ren errentamendu-kontratua esleitzeko taberna moduan ustiatzeko.**

**5.- Onestea, bidezkoa bada, txostenaren hasiera Estella-Lizarrako Hiri-lurreko Ondasunen Katastroko 3. Poligonoko 1058 lurzatia soberan deklaratzeko, Estella-Lizarrako Donostiako Etorbidean 2-C kokaturik dagoena, eta udal titulartasuna duena, geroago besterentzeko.**

**6.- Berrestea, bidezkoa bada, 202/2020 Alkatetza Ebazpena, 2020ko maiatzaren 15ekoa, horretan 5. Aurrekontu aldaketa onesten baitzen, Kreditu gehigarria, 231 gastuen programan, COVID-19ren pandemiaren ondorioei aurre egiteko.**

**7.- Hasiera batez onestea, bidezkoa bada, 7. Aurrekontu aldaketa 2020rako indarrean dagoen aurrekontuan, ezohizko kredituaren bidez eta kreditu gehigarrien bidez, gastu orokorretarako diruzaintzaren soberakinarekin finantzatuta.**

**8.- Dagokion akordioa hartzea gai honen ingurua: Estella-Lizarrako Udalaren agerpena eta bertaratzea kasazio-errekurtsoaren autoetan Auzitegi Gorenaren aurrean, JOSÉ MARIA GIL ARANA, MARÍA PILAR NÚÑEZ VIDAURRE eta AGUSTÍN AIZPURUA IMAZ JAUN-ANDREAK jarritakoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2019ko abenduaren 19an emandako epaiaren aurka, 415/2019 apelazio-errekurtsoaren autoetan emandakoa, hitzarmenak ofizioz berrikusteko espedienteari buruzkoa –eta, hala bada, ondorengo eranskinetan- Estella-Lizarrako Udalak Estella-Lizarrako Katastroko 4. Poligonoko 103, 191, 406, 408, 409, 410 eta 411 katastro-lurzatien jabeekin sinatutakoak, Oncinedako alderdian, Estella-Lizarrako Kirol Hiria egiteko.**

**9.- Onestea, bidezkoa bada, Estella-Lizarrako Gazteriaren II. Plana**

**10.- Izaera erabakigarria duten presako mozioak, halakorik bada.**

## **MOZIO EZ ERABAKIGARRIAK**

**11.- Izaera ez erabakigarria duten presako mozioak, halakorik bada.**

**12.- Eskariak eta galderak.**